



BPXport

IRUDIAK JASO ETA TRATATZEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Datu Pertsonalak Babesteko legedian ezarritakoari jarraikiz, BPXPORT XXI, S.L.U. (IFZ: B20901716), aurrerantzean “**BPXPORT**”, Tratamenduaren Erantzulea den heinean, pertsona interesdunei jakinarazi nahi die:

1. Ekitaldi honetan **argazkiak** eta bideo eta audio **grabazioak** egin daitezkeela, eta ondorioz, zure irudia eta ahotsa **BPXPORT**en tratamendu-sistemetan txertatu daitezkeela, eta **ekitaldia dokumentatzeko** tratatu daitezkeela, baita editatu, publikatu eta **baliabide eta formatu ezberdinetan zabaldu** ere (elektronikoak izan edo ez): webgune (bereziki www.bpxport.es) eta web kanalak, **komunikabide, sare sozial** eta informazio sareak, zabalkuntza materialak eta gainerako argitalpenetan, **BPXPORT**en menpekoak izan edo ez, interneten, paperean edo beste edozein euskarritan. Batzuetan, helburua hau lortzeko, datuak **komunikabide** desberdinei komunikatuak izan daitezke.



2. **Irudietan agertu nahi ez baduzu**, mesedez, **ez jarri kameraren aurrean** eta jakinarazi berariaz argazkilariari, ekitaldiaren antolatzaileari edo BPXPORT enpresako langileei. Behin argitaratuta, kentzea nahi baduzu, bidali mezu bat lop@bpxport.es helbidera, zein irudi den adieraziz. Eskaerak ahalik eta azkarren erantzungo dira.
3. Datuen babesari buruzko araudiak ezarritakoaren arabera, deskribatutako datuak tratatzeko eta komunikatzeko **oinarri juridikoa** honako hau da: **BPXPORT**en **legezko interesa**, ekitaldi bat antolatu eta zabaltzeko (Datuak Babesteko 2016/679 EB Erregelamendu Orokorraren 6.1.f artikuluan xedatutakoa).
4. **BPXPORT**ek ez du inolako kontrolik ekitaldira bertaratutako pertsonen beren gailuekin modu partikularrean egin ditzaketen argazki edo grabazioen gainean. **BPXPORT**ek arretarik eta errespeturik handiena eskatzen dizu: **ez grabatu edota zabaldu inoren irudirik bere berariazko baimenik gabe**. **BPXPORT**ek ez du bere gain hartuko beste pertsona batzuek egindako grabazioen gaineko inolako erantzukizunik.
5. Datuak eskuratu, zuzendu, deuseztatu, lekualdatu, tratamendua mugatu eta tratamenduari aurka egiteko **eskubideak edonoiz baliatu ditzakezu**, baita bestelako edozein eskaera egin ere, eta horretarako **BPXPORT** enpresari idatziz zuzendu beharko duzu helbide honetara: Gurutzegi 12, 1., 8 lokala, Belartza Poligonoa, 20018 Donostia (Gipuzkoa), edo lop@bpxport.es posta elektronikoa helbidera. Eskaerak erantsita eraman beharko du eskatzailearen identitatea egiaztatzeko dokumentu baten kopia. Eskaeren ebazpenekin ados ez bazaude edo kexaren bat jarri nahi baduzu, Datuak Babesteko Bulegora jo dezakezu (www.aepd.es).